

**Annick DUVAL.** Espainiarako 332 CEN/TC-eko AENOR-etako ordezkaria  
**Javier Eransus Izquierdo.** Prebentzioko teknikaria. NLOI  
 2011ko Ekaina



## Segurtasun dutxa eta begi-garbitzaileei buruzko Europako arau berria (15154: 2009 EN Arauaren laburpena)

CEN/TC 332 "Laborategiko Materiala" europar batzordeak, Alemaniako DINaren babespean (Deutsches Institut für Normung), bildu egin da herrialdeetan diren estandarrak bateratzeko eta segurtasun dutxei segurtasun maila gutxieneko bat emateko. Estatu guztietako lan segurtasuneko adituek egin dute lan: segurtasun institutu nazionalak, normalizazio institutuak (AENOR Espainian), fabrikatzaileak, banatzaileak eta erabiltzaile batzuk.

Ur dutxentzat segurtasun baldintza oinarritzko bat ezarri ondoren (60 l/gutx. 15 minutuz, 15°-37°) ur sareari lotu gabeko gailuak ere normalizatu dira. Horiek adinako eraginkortasuna dutenak fabrikatzaileak probatu ditzake.

EBko 27 herrialdeek 2009an berretsi zuten arau berria. **Arau horrek aitorten ofiziala ematen die, halaber, ur sareari lotutako sistemei.** Lau zatitan banatzen da:

- 15154-1:** ur sareari lotutako gorputzerako dutxak, laborategian erabiliak.
- 15154-2:** ur sareari lotutako begi-garbitzaileak.
- 15154-3:** ur sareari lotu gabeko gorputzerako dutxak.
- 15154-4:** ur sareari lotu gabeko begi-garbitzaileak.

Bosgarren zatia, **15154-5:** ur sareari lotutako gorputzerako dutxak ekoizpen instalazioetan, garatzeko daude.

Arriskuguneetan diharduten pertsonengandik hurbil jarriko dira gailuak beti, lehen laguntzak berehala eman ahal izateko.



## 1. eta 2. zatiak (ur sareari lotutako gailuak)

### BETEBEHARRAK:

- Garrak itzali eta/edo substantziak garbitu edo diluitzeko, kalterik egin ez dezaten.
- Aurreko eta kontrako legeriarik ez badago, emari jarraiki bat (gutxienez, 60 l/minutuan dutxetarako, eta 6 l/minutuan begi-garbitzaileetarako).
- Dutxetan, emariaren % 95ek 400 mm-ko zirkuluaren barrenean erori behar du; begi-garbitzaileari dagokionez, turrustak 100 eta 300 mm artean izan behar du.
- Jario etengabea, gutxienez 15 minutuan (900 litro dutxa baterako, 90 litro begi-garbitzaile baterako).
- Edateko ona den ura, edo kalitatez antzetsukoa, erabilitako materialek kutsatu gabea.
- Uraren tenperatura 15° C eta 37° C artekoa, hipotermiarik gerta ez dadin.

### FABRIKATZAILEAK EMAN BEHARREKO ARGIBIDEAK:

- Instalazioa, martxan jartzea, mantentze-lanak.
- Ohiko kontrolen maiztasuna eta metodoa.
- Fabrikatzailearen identitatea eta modeloaren zenbakia (gailuan berean).

## 3. eta 4. zatiak (ur sareari lotu gabeko gailuak)

Deskontaminazioa ahalbidetzen dute, bai istripuaren tokian, bai ospitalera eramaterakoan.

### EDUKIAREN BETEBEHARRAK:

- Beroaren eta/edo substantzia kaltegarrien ondorioak apaltzeko adinako eraginkortasuna izatea
- Edateko ona den ura (edo kalitatez antzetsukoa) edo **soluzio esterilak** (gailu medikoei buruzko (erref. 93/42/CEE eta araua EN 556-1 eta 556-2 gailu horiek esterilizatzeari buruzkoa).
- Emari ez-kaltegarria.
- Fluidoaren kaltegabetasuna, baliagarria den bitartean.
- Martxan jartzea 5 segundotan.

### EDUKITZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Pisua eta bolumena motaren eta soluzioaren arabera dira. Adibidez:

- Dutxa eramangarria < 15 Kg. Soluzioak baditu, 10 litro uren eraginkortasuna lortzeko adinako bolumena izan behar dute.
- Begi-garbitzaile pertsonala: sakelan edo zorroan eramateko modukoa, lanean mugitzea eragotzi gabe. Soluzioak baditu, 150 ml uren eraginkortasuna lortzeko adinako bolumena izan behar dute.
- Bolumenari dagokion edozein ezeztapen, eraginkortasunaren bidez justifikatu behar da. Fabrikatzaileari uzten zaio soluzioen eraginkortasunaren frogak ekar ditzan (saio klinikoak, pH testak, eta abar).
- Erabilera bakarreko gailuentzat, bortxaezintasun zigorria.

### FABRIKATZAILEAK EMAN BEHARREKO FUNTSEZKO ARGIBIDEAK, etiketak edo horietatik kanpo (EN1041 eta EN980 erreferentzien arabera):

- Fabrikatzailearen identitatea eta produktuaren identifikazioa.
- Estirilitatea eta erabilitako metodoa.
- LOTE kodea eta iraungipen data (urtea/hilabetea/eguna).
- Bolumena eta erabilera bakarra, behar bada.
- Erabiltzeko aholkuak eta/edo arreta; **kontraindikazioak**.
- **Aurreikusitako erabilera eta unitateak deskontaminatzea baimentzen duten produktu kimikoak edo taldea.**
- **Produktua erabiltzeko prozedura argia, substantzia kaltegarriak ez-kaltegarri bihurtzeko.**
- Instalatzeko eta mantentzeko aholkuak.

Fabrikatzaile asko martxan jarri dira konformitate maila hauek betetzeko eta erabiltzaileari informazio hau emateko:

- Erabiltzeko protokolo argi bat, eskatzen den eraginkortasuna lortzeko.
- Soluzioak kaltegarriak ez izateari buruzko konpromiso bat.
- Positiboki probatutako produktuen zerrenda bat, bai eta aipatu soluzioen eraginkortasunaren behin-behineko mugak.

Orain, material erabat seguruaz jabetzen dela jakitearren, aipatu materiala arau berriari osoki egokitzen zaiola frogatzen duten agiriak eskatu behar dizkio erabiltzaileak hornitzaileari.